

FAUNA PUBLIKOA

**“Hemendik aurrera
Italia ezetz esaten hasi da
gizakien trafikoari,
ezetz esaten legez kontrako
immigrazioaren negozioari”**

**Matteo Salvini,
Italiako Barne ministroa (Twitter)**

Perfumerik gabe



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Ezezko bakoitzak gordetzen omen du baiezkoren bat eta Salviniaren uko publiko hauek ere, badaukate atzean zerbaiten alde egiteko intentzioa. Italiako Barne ministro berriaren jarrera Giorgio Armaniren perfume bat iragartzeko eslogana izan liteke: “*Si alla forza, si ai sogni, si a me stessa*”... baina batez ere: “*Si al fascismo*”.

Erabakia perfumatzeke lanik hartu gabe, joan den larunbatean Mediterraneoan erreskatatu zituzten 629 lagun Italian sartzea debekatu die Lega Nordeko ministroak “doazela Malta!” esanez; eta adi kontua nondik enfokatu duen: gizakien trafiko, immigrazioaren negozioa. Mugak kontrolatzeko milioika eurotako negozioirik ez balego bezala.

Italia ez da, bistan denez, errefuxiatu krisi globalaren erdian are gehiago gotortzen ari den estatu bakarra: gogoratu antzeko usaina duten gertakariak Espainia hegoaldean, 2014ko Tarajalgo hildakoak adibidez -15 gorpu atera zituzten uretatik muga igeri pasa nahian ari zirenean Guardia Zibilak tirokatuta; benetako biktima-kopurua ez da, segur aski, inoiz ezagutuko-.

Baina Salviniaren deklarazio honek koska bat harago eraman du problema, migrazio-politika kriminalei erantsi dielako diskurtso bat, dagoeneko ez daukana aitzakia-lurrik, ez erruki tantarik, ezta itsasoan hiltzeko arriskuan daudenenganako begiramen txikienik ere.

Baina urteak dira mota horretako politiken kiratsa sumatzen dugula, pentsatuko du batek baino gehiagok; zer axola du nola zurretzen diren erabaki horiek? Ba badu: agintari batek kolektibo oso baten kontra mota honetako neurriak iragartzen dituenean, zentraltasun handia ematen baitie gizarte batean egon daitezkeen instintu ilunenei. Estolda horietatik ez da fragantzia onik aterako. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



**BIZKOR! EKARRAK
AUTONOMIA ESTATUTU
BERRIA!**

**MUGI
HADI!**



ADUR